



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

EUSKARAREN ERABILERAREN KUDEAKETA-PLANA (2025-2026)

LEHIAREN EUSKAL KONTSEILUA

Osoko bilkura:

Ainara Herce San Martín, lehendakaria

Arantza González López, kontseilukidea

Enara Venturini Álvarez, kontseilukidea

Josu Aguirre Goitia, idazkaria

Lehiaren Euskal Kontseiluak (LEK), adierazi den bezala osatuta, 2025eko martxoaren 31n eginiko bileran, *2025-2026 epealdirako LEA/AVCko Euskararen Erabileraren Kudeaketa-plana* onartu du.



LABURPENA:

I. EUSKARAREN ERABILERAREN NORMALIZAZIOA.....	2
II. 2025-2026 EPEALDIRAKO LEA/AVCko EUSKARAREN ERABILERAREN KUDEAKETA-PLANA	3
1. Ekintzak, erantzukizunak eta epeak	4
2. Euskara Batzordea	4
ERANSKINA	5

I. EUSKARAREN ERABILERAREN NORMALIZAZIOA

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikulua (abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa) ezartzen du euskara dela Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) berezko hizkuntza ofiziala, eta biztanle guztiek euskara eta gaztelania ezagutzeko eta erabiltzeko duten eskubidea aldarrikatzen du. Era berean, erakunde erkideei aitortzen die, besteak beste, bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzeko erantzukizuna.

2. Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak hizkuntza-politikako ekimenak garatzeko bidea ireki zuen, gizartearen eremu estrategikoetan euskararen ezagutza eta erabilera berreskuratzeko eta euskararen erabilera sustapena hedatzeko beharrezkoa den erakundeen babesa eskaintzeko. Horretarako, hizkuntza-plangintzaren prozesuaren oinarrizko ildoak zehaztu zituen.

3. Euskararen normalizazioa helburu estrategikoa da, eta euskal sektore publikoko erakundeek zeharkako politika publiko gisa kudeatu behar dute, eta, ondorioz, gauzatzen dituzten jarduerak guztiei eragingo die.

Hain zuzen ere, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 2.2 e) artikulua jasotzen du, euskal enplegu publikoa gidatu behar duten printzipioen artean, euskararen erabilera normalizatzeko konpromisoa.

Dekretu hori garatzeko, otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuak, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeari buruzkoak (Normalizazioari buruzko Dekretua), ezarri du euskal sektore publikoa osatzen duten subjektuek euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza gisa erabat normalizatzera bideratuko dutela beren jarduna.

4. Gaur egun, hizkuntza-plangintzako tresnak honako hauek dira: Hizkuntza Ofizialen Erabilera Irizpideak, plan estrategikoak eta kudeaketa-planak.

5. Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak euskal sektore publikoko erakunde bakoitzak bere plangintzaren esparruan ezarritako irizpideak dira. Normalizazioari buruzko Dekretuaren 7.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, euskal sektore publikoko erakundeek eta haien zerbitzura dauden langileek hizkuntza-arloan bete behar dituzten oinarrizko jarduerak dira. Eusko Jaurlaritzak [Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak](#) onartu ditu.



6. Plan estrategikoak jasotzen ditu, plangintzaldi bakoitzerako, lortu beharreko helburuak, hartu beharreko neurriak eta euskara zerbitzu-hizkuntza gisa ere erabiltzen dela bermatzeko eta lan-hizkuntza gisa areagotu eta normalizatzeko jarri beharreko bitartekoak, betiere abiapuntuko egoeraren diagnostiko kuantitatibo eta kualitatiboa oinarri hartuta. Hala, euskal sektore publikoko entitate bakoitzak bere plan estrategikoa egin eta onartuko du plangintzaldi bakoitzaren lehen urtean, barne-antolamenduko arauen arabera.

VII. Plangintzaldia 2023ko urtarrilaren 1etik 2027ko abenduaren 31ra bitartekoa da (Normalizazioari buruzko Dekretuaren laugarren xedapen iragankorra). 2023ko urtarrilean, Eusko Jaurlaritzak [VII. plangintzaldirako Eusko Jaurlaritzan euskararen erabilera normalizatzeko Plan Estrategikoa \(2023-2027\)](#) onartu zuen, euskal sektore publikoko erakundeek plan estrategikoak egiteko eredu izan dadin.

7. Bestalde, Normalizazioari buruzko Dekretuak kudeaketa-plana plan estrategikoan ezarritako helburuak lortzeko tresnatzat hartzen du, eta haren egitura plan estrategikoarenarekin bat etorri behar dela ezartzen du. Hala, ezarritako epean plan estrategikoan jasotako helburuak lortzera bideratutako ekintza zehatzak jasoko ditu, bai eta erantzukizunen esleipena, epeak eta horien jarraipena egiteko epemugak ere.

II. 2025-2026 EPEALDIRAKO LEA/AVCko EUSKARAREN ERABILERAREN KUDEAKETA-PLANA

8. Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailak, VII. *plangintzaldirako Eusko Jaurlaritzan euskararen erabilera normalizatzeko Plan Estrategikoa (2023-2027)* delakoarekin bat etorriz, bere plan estrategikoa onartu du, 2024ko azaroaren 12an.

LEA/AVC Ogasun eta Finantza Sailari atxikita dago¹.

9. 2025-2026 epealdirako LEA/AVCko Euskararen Erabileraren Kudeaketa-plana aipatutako Plan Estrategikoaren esparruan onartu da, eranskinean sartutako taulan agertzen diren edukiekin, honela egituratuta:

1. KUDEAKETA

1.1. Kudeaketa orokorra

1.2. Lidergoa

1.3. Langileak

¹ Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko [18/2024 Dekretuaren](#) 8.2 artikulua; eta Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urriaren 29ko [313/2024 Dekretuaren](#) 2.4 a) artikulua.



1.4. Gaitasuna

1.5. Komunikazioa

1.6. Hizkuntza-klausulak

2. ERABILERA

2.1. Irudia

2.2. Herritarrekiko harremanak

2.3. Barne-harremanak

2.4. Kanpo-harremanak

2.5. Prestakuntza

2.6. Baliabide informatikoak

2.7. Sortze-hizkuntza

1. Ekintzak, erantzukizunak eta epeak

10. Zehazki, 2025-2026 epealdirako LEA/AVCko Euskararen Erabileraren Kudeaketa-planean identifikatzen dira plan estrategikoan jasotako helburuak lortzeko ekintza zehatzak, esleitutako erantzukizunak, ekintzen jarraipena egiteko epeak eta epemugak, Normalizazioari buruzko Dekretuaren 20.4 artikuluan agindutakoarekin bat etorriz.

2. Euskara Batzordea

11. Ekintzen jarraipenerako, *Euskara Batzordea* eratu da, honako persona hauek osatuko dutena, aipatuko diren zereginak beteko dituztenak:

(1) *Liderra*: LEA/AVCko lehendakaria, Ainara Herce San Martín.

(2) *Arduradunak*: LEA/AVCko idazkari nagusia, Josu Aguirre Goitia eta lehiaren arloko arduradun bat, Guillermo Aranzabe Pablos.

(3) *Bidelagunak*: goi-kargudunaren idazkaria, Itziar Ugarte Elorriaga, lehiaren arloko arduradun bat, Noemí Angulo Garzaro eta zerbitzu- eta administrazio-teknikaria, Beatriz Barrenechea Echevarria.



ERANSKINA

	AZPIARLOA	ADIERAZLEA	EKINTZA	DATA	ARDURADUNAK	HASIERAKO EGOERA	HELBURUA	EMAITZA (abenduan betetzeko)
KUDEAKETA	Euskararen kudeaketa orokorra	1.0.1.1	Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du.	Planak sortu, onartu eta martxan jarri, liderrarekin batera.	2025	Euskara Batzordea	% 0	% 100
		1.0.1.2	Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.	Euskararen kudeaketa orokorra erakundearen zeharleroko gisa ezarri (kudeaketa orokorrean txertatuta) eta prozesu hori ebaluatu.	2025	Euskara Batzordea	% 20	% 100
	Lidergoa	1.0.2.4	Arduradun politiko eta teknikoak parte hartzen dute erabilera planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean	Euskara Batzordea eratu eta Batzorde horrek parte hartzea planen sorrera, kudeaketa eta ebaluazioan. Urtean bitan elkartuko da.	2025	Euskara Batzordea	% 20	% 100
		1.0.2.5	Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, Erabilera Planean ageri diren helburuak bete daitezten	Langile berriei harrera linguistikoa egin eta bidelagunak emaila bidali.	2025	Bidelagunak	% 0	% 100
		1.0.2.6	Izendatutako arduradunak dagozkien adierazleak biltzen dituzte, erabilera planean zehaztutako moduan	Euskara Batzordea sortu eta kudeatu. Apirila. Urtean lau bilerak egiteko datak zehaztuko dira, eta egite-maila aztertuko da.	2025	Euskara Batzordea	% 0	% 100
	Langileak	1.0.3.7	Langileei ematen zaie informazioa erakundearen erabilera planari eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten	Planen aurkezpena eta zabalkundea. Langile berriei hizkuntza-harrera eta aholkularitza eman.	2025	Bidelagunak	% 0	% 40
		1.0.3.8	Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte	HOIEen eta hauek betetzeko tresnen sozializazioa eta betetze-mailaren jarraipena.	2025	Euskara Batzordea	% 85	% 100
		1.0.3.9	Langileek betetzen dituzte kudeaketa-planean adostutako eginkizunak.	Plan estrategikoaren alorkako jarraipena egin lankideekin.	2025	Euskara Batzordea	--	% 100
		1.0.3.10	Langileek parte hartzen dute kudeaketa-planean zehaztutako sustapen-ekintzetan.	Euskara sustatzeko ekintzen kudeaketa eta gonbidapena (Korrika, Euskaraldia, ENE)	2025	Bidelagunak	--	% 100
		1.0.3.11	Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilerak erakundearen duen bilakaeraz.	Asebetetze-inkestak egin eta dituzten hizkuntza-beharrak galdetu.	2025	Euskara Batzordea	% 100	% 100



	Gaitasuna	1.0.4.12	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko	Euskaltegietako ikastaroen kudeaketa eta euskara ikasteko laguntzak. Mintza-saioen beharra aztertu.	2025	HNT eta bidelagunak	% 60	% 80	
		1.0.4.13	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko	ELEBI eta berariazko prestakuntza. Euskaraz idatzeko tresnen sozializazioa. Testuen zuzenketa egin eurekin batera eta hortik abiatuta trebakuntza eskaini.	2025	HNT eta bidelagunak	% 60	% 80	
		1.0.4.14	Ordezkeri politikoak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz betetzeko	Ekitaldietan euskaraz aritzeko prestakuntza. Mintza-saioak egin eurekin.	2025	Liderra	% 50	% 75	
	Komunikazioa	1.0.5.16	Erakundeak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeke ekimenetan parte hartzen du.	Hizkuntza normalkuntzarekin lotutako ekintzen berri eman.	2025	Euskara Batzordea	% 0	% 100	
	Hizkuntza-klausulak	1.0.6.17	Kontratueta hizkuntza-klausulak txertatzen dira	Kontratueta hizkuntza-klausulen eguneratzea. Kontratuak zerrendatu, lehenetsunak ezarri, ardurak banatu.	2025	Euskara Batzordea	% 25	% 50	
		1.0.6.18	Dirulaguntza eta hitzarmeneta hizkuntza klausulak txertatzen dira	Dirulaguntza eta hitzarmen guztietan hizkuntza-klausulak txertatu.	2025	Euskara Batzordea	% 30	% 75	
		1.0.6.19	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratueta hizkuntza-klausulen betetze mailari	Kontratueta hizkuntza-klausulen jarraipenerako sistema (zerrendatzea).	2025	Euskara Batzordea	% 0	% 50	
1.0.6.20		Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmeneta hizkuntza-klausulen betetze-mailari	Hitzarmeneta hizkuntza-klausulen jarraipenerako sistema. Zenbat egiten diren eta zenbat aurreikusten diren 2025erako.	2025	Euskara Batzordea	% 30	% 75		
ERABILERA	Irudia	2.1.1.21	Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude	Errotulazioa (finkoak zein behin-behinekoak) euskaraz (ere) jartzea. Irailerako denak ele bietan.	2025	Bidelagunak	% 40	% 100	
		2.1.1.22	Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude	Erakundearen errotulazioa zaindu, baita webgune eta sare sozialetako publizitatea ere, eta argitalpenak, iragarkiak eta publizitatearen jarraipena egin. Neurtu eta falta direnak euskaraz ere jarri.	2025	Bidelagunak	% 100	% 100	



	2.1.1.23	Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan	Agerraldi instituzionaletan euskara gehiago txertatzeko plangintza. Agerraldietako hizkuntzaren erabilera neurtu eta, beharrezkoa bada, aldatu.	2025	Liderra	% 40	% 100	
	2.1.1.24	Erakundeak euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak	Eduki digitalen jarraipena.	2025	Bidelagunak	% 100	% 100	
Herritarrekiko harremanak	2.1.2.25	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen	Hizkuntza ahalduzeari eta sentsibilizazioari buruzko formazioa.	2025	Bidelagunak	% 100	% 100	
	2.1.2.26	Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz	Segimendua egin, baina lehenago segimendu hori nola egingo dugun zehaztu. Otsaila-apirila zehazteko, maiatza-abendua segimendua egiten hasteko.	2025	Bidelagunak	% 100	% 100	
	2.1.2.27	Herritarrentzako ekitaldiak euskaraz eskaintzen dira	Hitzaldiak eta abar antolatzen dituztenek hizkuntzen kudeaketa presente izan dezaten irizpideen berri eman.	2025	Bidelagunak	% 50	% 90	
	2.1.2.28	Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak	Segimendua egin eta segimendu hori nola egingo dugun zehaztu.	2025	Bidelagunak	% 80	% 100	
	2.1.2.29	Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egiten duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz	Segimendua egin eta segimendu hori nola egingo dugun zehaztu.	2025	Bidelagunak	% 100	% 100	
	2.1.2.30	Herritarrak euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, ahoz	Lehen hitza euskaraz izan dadin bultzatu.	2025	Bidelagunak	% 5	% 20	
	2.1.2.31	Herritarrak euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, idatziz	Komunikazioa euskaraz izan dadin bultzatu.	2025	Bidelagunak	% 5	% 20	
	Barne-harremanak	2.2.1.32	Lan bilerak euskaraz egiten dira.	LEA/AVCn egiten diren batzorde eta lantalde egituratuen bilera formal guztiak aztertu, horietan euskararen presentzia eta erabiera handitzeko: bileren maiztasuna, kopurua, kide-kopurua, kideen euskara-maila, euskararen erabilera-maila, eta banatzen eta erabiltzen den dokumentazioa.	2025	Euskara Batzordea	% 50	% 75
2.2.1.33		Lankideen arteko ahozko lan harremanak euskaraz izaten dira	EUSLE dinamika egiteko aukerak aztertu.	2025	Euskara Batzordea	% 50	% 75	



	2.2.1.34	Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da.	Sentiberatze-bilerak egitea: prestakuntza/sentsibilizazio saioak egin.	2025	Euskara Batzordea	% 50	% 75	
	2.2.1.35	Erakunde barruko idatzizko lan komunikazioak euskaraz izaten dira		2025	Euskara Batzordea	% 50	% 95	
	2.2.1.36	Erakundeak euskaraz gutxienez lantzen ditu ofizioz abiatutako prozedura administratiboen barne izapideak, betiere hartzailea ezaguna ez den kasuetan	Prozedura administratiboen hizkuntza aztertu eta euskaraz egin daitezen sustatu (testuak identifikatu, euskaraz egiteko zailtasunak aztertu eta irtenbidea bilatu: testuak estandarizatu etab.). Prozedura eta dokumentuen inbentarioa egin.	2025	Euskara Batzordea	% 90	% 100	
	2.2.1.38	Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago.	Karpeta fisikoak, ordenagailuko karpetak, dokumentuak etab. Euskaraz daudela zaindu; zaharrak edo falta direnak euskaraz jarri.	2025	Bidelagunak	% 5	% 50	
Kanpo-harremanak	2.2.2.39	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana	Solaskideen inbentarioa egin eta EAEkoei euskaraz egiteko nahia adierazi.	2025	Euskara Batzordea	% 50	% 100	
	2.2.2.40	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz edota ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak	Euskaraz sortzearen abantailak ikusarazi eta Euskaraz sortutako testuak euskaraz bidali EAEko administrazioetara.	2025	Euskara Batzordea	% 50	% 100	
	2.2.2.41	Enpresa pribatuekin euskaraz egiten da ahozko harremana.	Asko EAEkoak ez diren arren, EAEkoak direnei euskaraz aritzeko gonbidapena.	2025	Euskara Batzordea	% 5	% 25	
	2.2.2.42	Enpresa pribatuei euskaraz edo ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak	Otsaila-apirila: dokumentuak aztertzeko. Maiatza-iraila aldatzeko	2025	Euskara Batzordea	% 100	% 100	
Prestakuntza	2.2.3.43	Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei	Barne-prestakuntza planean urtero, behintzat, ikastaro bat ele bietan eskaini.	2025	Euskara Batzordea	% 100	% 100	
	2.2.3.44	Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra	Euskarazko laneko prestakuntzaren eskaintza areagotzeko prestakuntza euskaraz ematen duten zerbitzu-enpresen zerrendak osatu.	2025	Euskara Batzordea	% 25	% 30	
	2.2.3.44	Hizkuntza-trebakuntza eskaintzen zaie langileei	Langileei hizkuntza prestatzeko dauden aukerak gogorarazi.	2025	Euskara Batzordea	% 100	% 100	



Baliabide informatikoak	2.2.4.46	Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak	Euskarazko bertsioak instalatzeko eta erabiltzeko sustatze-lana egin.	2025	Bidelagunak	% 50	% 75	
	2.2.4.47	Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten aplikazio informatikoak	C1 eta C2 duten langileak Windows euskaraz instalatzera animatu eta aldaketa egin den baloratu.	2025	Bidelagunak	% 50	% 75	
Sortze-hizkuntza	2.2.5.48	Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak	Lanerako ohiko dokumentuen ereduak estandarizatu, HOElak beteta. Langileen autonomia bultzatu bere dokumentuak elebitan eta kalitatez sortzeko, itzulpen tresnak behar bezala erabilia.	2025	Euskara Batzordea	% 25	% 30	